

**20/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 16KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE  
IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA  
KONTSUMO SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA  
EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administraziozko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako hau ezartzen du 15. artikuluan:

15. artikulua.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari:

- a) Turismoa.
- b) Merkataritza.
- c) Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak.
- d) Kontsumoa.
- e) Prezioen politika.
- f) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- g) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

2.– Sail honi atxikitzen zaizkio "Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua" erakunde autonomoa eta "Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A." sozietate publikoa.



Hortaz, dekretu-proiektua egitea sustatu da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 15. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

Aipatutako sailak eskaera bat egin zuen 2020ko abenduaren 1ean, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG\_DEC\_108913/20\_12) txostenerako interesgarriak diren honako agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Justifikazio-memoria, Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

## **II.- ESKUMENA.**

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrek beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:



### III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatzen dira:

“5. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzari dagozkio, zuzenean sailburuaren mende eta sailburuordetzarekin koordinatuta, eskudantzia hauek:

[...]

h) Jardun-arloaren barruko espedienteetatik eratorritako gastua baimentzea.

[...]

2.– Zerbitzu-zuzendaria izango da sailaren organo kontratatzailea, eta eskudantzia hauek dagozkio:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko zerbitzu teknikoei eta baliabide propioei egindako enkarguen eta kontratazioen espedienteak izapidetzea.

b) Baliabide propioen eta zerbitzu teknikoek enkarguen kontratuak egitea. Bi kasuetan, gastua egiteko baimena eman beharko du.

Lehengoa gorabehera, Gobernu Kontseiluaren baimena behar da aurrekontu-legeek ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak edo esparru-akordioak egiteko.

[...]»

“6. artikulua.- Sailburuordetza.

1.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko sailburuordea sailburuaren mende egongo da zuzenean eta hierarkikoki, eta jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatuko ditu:

a) Turismoa.

b) Merkataritza.



2.- Sailburuordetzari dagokio honako eskudantzia hauek betetzea:

[...]

m) Bere jardun-arloaren barnean hartutako espedienteen ondoriozko gastua baimentzea, non eta baimen hori ez den beste organo baten eskumena.

[...]”

“LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honek aipatzen dituen organoetako titularren postuak hutsik geratuz gero, edo haien absentziaren edo gaixotasunaren kasuetan, haiei esleitutako egitekoak eta eskumenak hierarkian gorago dagoen organoko titularrak baliatuko ditu, egoera hori luzatzen den bitartean eta saileko titularrak berariazko ebazpena eman ezean, bi kasu hauetan izan ezik: Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzarenean eta Zerbitzu Zuzendaritzarenean, haiek elkar ordezkatzuko baitute.”

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua hau xedatzen du: *“Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak; [...], salbu eta egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan horri buruzko berariazko beste aurreikuspenen bat jasotzen bada [...].”*

Ahalmen hori baliatuz, dekretu-proiektuak honako aurreikuspen hauek ditu:

Bitarteko propio pertsonifikatuei kontratuak eta enkarguak egiteko eskumena Zerbitzu zuzendariari dagokio.

Eskudantzia hori da, beraz, gai horri buruzko aurreikuspen espezifikoak, eta zuzena da, baina kontuan hartu behar da ezen, kontratazio-organo gisa, kontratuak egitea dagokiola, baina beste kontu bat da kontratuak izapidetzea, hori Zuzendaritzari baitagokio, eta ez zuzendariari. Era berean, dekretu-proiektuaren asmoa bitarteko propio pertsonifikatuei (Sektore Publikoko Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak izen hori ematen die. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta



Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentzaruen transposizioa egiten da (Espainiako ordenamendu juridikora) enkarguak egitea da, baina Zuzendaritzak egingo du dagokion izapidetzea, ez zuzendariak, eta, gainera, zeregin hori ez dago lotuta sailaren kontratazio-organoa izatearekin.

Horrenbestez, txostenaren xede den Dekretuaren 5. artikulua 2. apartatua berridaztea proposatzen da, honela:

"2.- Zerbitzu zuzendaria izango da sailaren kontratazio-organoa. Lehengo gorabehera, Gobernu Kontseiluaren baimena behar da aurrekontu-legeek ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak edo esparru-akordioak egiteko.

Zerbitzu zuzendaria izango da, halaber, Sailarentzat Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egingo dizkiena.

Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumena izango da kontratazio-espedienteak eta Saileko bitarteko propio pertsonifikatuei egiten zaizkien enkarguak izapidetzea. "

Gure iritziz, kontuan izanik 5. artikulua 1. apartatuaren h) letran jadanik modu generikoan egin dela, ez da beharrezkoa apartatu honetan berriz adieraztea berak baimenduko duela bere jardun-eremuko espedienteetatik eratorritako gastua.

Amaitzeko, nahiz eta gaia ez izan zuzenean txosten honen xedea, badu garrantzia 116/2016 Dekretuaren 2. artikuluan (eremu subjektiboa) egiten den "sektore publikoaren" definizioari dagokionez, zeina Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 7.4 artikulutik datorrena baita, eta, beraz, dekretu-proiektuaren 2. artikuluko c) letran "sektore publikoa" aipatu ordez, agian, "Sailari atxikitako beste erakunde eta sozietate batzuk" jar liteke.

Adierazitakoa kontuan izanik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari buruz, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.